# Familia etorkinen eta eskolen arteko harremanetarako Jardunbide Egokien Gidaliburua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

# Familia etorkinen eta eskolen arteko harremanetarako Jardunbide Egokien Gidaliburua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

Vitoria-Gasteiz, 2010

Pepe Motoso jaunak Kultura arteko Hezkuntza Programarako (Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza) egindako *Relaciones entre familia y escuela desde la diversidad cultural y social* dokumentuaren zatia (2009).


© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila



Internet www.euskadi.net

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 (48007 Bilbao)

# AURKIBIDEA

1 Hitzaurrea ........................................................................................ 7

2 Familiek eskolan parte hartu eta elkarlanean aritzeko baldintzak .......... 11

3 Partaidetza prozesu bat aktibatzea .................................................. 13

4 Laguntzeko/parte hartzeko zenbait modu ......................................... 19

4.1. Familiei guraso gaitasunak garatzen laguntzea ........................... 19
4.2. Familien kultura kapitalaren bitartez eskolari eman beharreko laguntza .......................................................................... 25
4.3. Komunikazioa: kulturalki orientatutako komunikazio prozesuak ezartzeko orientabideak .............................................................. 26
4.4. Etxean ikastea .............................................................................. 27
4.5. Boluntarioak ................................................................................ 29
4.6. Erabakiak hartzea ......................................................................... 30
4.7. Komunitateari laguntzea ................................................................ 31

5 Bibliografia ......................................................................................... 33

# 1 Hitzaurrea

Proposamen barne-hartzailearen ildo nagusietako bat zera da, ikasleen eta horien senitartekoen ikaskuntza eta partaidetza galarazten duten oztopoak ezabatu behar dituela eskolak, hain zuzen ere. Horrela, eskolen xedeetako bat familiek ikastetxean parte har dezaten eta inplika daitezen sustatzea izango da.

Gurasoak ikasleen eskola-lanen eta -aurrerapausoen jarraipenean inplika daitezen lortzea ez ezik, hezkuntza-komunitateko kide guztiek ikastetxea berezko gisa senti dezaten lortzea da adierazitako proposamenaren jomuga, eta horrenbestez, ikastetxea partaidetzarako eta hiritar-ikaskuntzarako instantzia bilaka dadin (Baraibar, 2005). Soilik utilitarista den ikuspegitik (arazoak konpontzeko, familiaren eta eskolaren arteko aliantzak ezartzea) bilakaera jakin bat lortzea da horren ideia, emankorragoa izango den beste ikuspegi bat (elkarrekiko laguntza bilatzea, partekatutako herritartasuna sortzeko) txertatuz.

Gure herrialdean, erakunde publikoak familien partaidetza eta inplikaziorako bi egitura nagusi garatu ditu: batetik, tutoretzak, eta bestetik, ikasleen gurasoen elkarteak (IGEak); hala eta guztiz ere, partaidetza-modalitate horien gaineko datuak kezkagarriak dira[1]: 10 familiatik 4 ez dira IGEko kideak, 10 familiatik 7k, berriz, ez dute parte hartzen IGEren jardueretan, eta 10 familiatik batek baino gutxiagok hartzen du parte IGEren antolakuntzan.

Gaur egun, eskolaren eta familien arteko harremana norabide bakarrekoa da funtsean, eta informazio multzo jakin bat transmititzean datza; izan ere, distantzia fisiko eta sozialak dirau oraindik ere. Familiek haratago joateko izan dezaketen asmoa, askotan, berezko gisa atzemandako erantzukizunetan sartzetzat jo ohi dute ikastetxeek. Profesional gisa, horren gaineko hausnarketa egin beharko genuke, hots, sartze gisa atzemate hori zein neurritaraino den profesionalon segurtasun-gabezia sakon baten adierazgarri. Familiak beren semealaben zerbitzuko aliatu gorentzat jo beharko lirateke, eta horretarako, irakasleak ulertu behar du familiak hezkuntza-prozesuan sartzea bere eginkizunetako bat dela.

---

1 GARRETA, J. (edit.): *La relación familia-escuela*, Universitat de Lleida, Lleida, 2007.

Atzerriko jatorria duten ikasleen familiek ezaugarri jakin batzuk izan ditzaketela (hizkuntza- edo kultura-oztopoak, antsietate-sentimendua edota segurtasun-gabeziako sentimendua, mezu negatibo sistematikoak, familiek izandako eskola-esperientzia negatiboak, gutxiengoei ez entzutea —familiak—, gutxiengoek eraginik ez izatea, eta abar) eta ezaugarri horiek horrelako familien ezagutza-mailan eta ikastetxeekiko harremanean/laguntzan nolabaiteko eragina izan dezaketela ukaezina bada ere, etorkinen seme-alabek hezkuntzan arrakasta izateak etorkin horien migrazio-proiektuak ere arrakasta izatea esan nahi duela baiezta dezakegu. Horregatik, familia etorkin gehienek garrantzi gailena ematen diote hezkuntzari.

Gizarteratze-prozesuan eta eskola-jardueran gertatu ohi diren arazoak agertzeko, hipotesi etnolkulturalak erlatibizatu behar ditugu. Argi dago autoktonoen gizarte-sektore baliokideek eta zenbait etorkinek zenbait egoera berdin izan ohi dituztela. Esparru jakin batzuetan —esaterako, etxebizitza-esparruan edota osasun-esparruan— hedatuta dagoen ezegonkortasunak —lanekoak nahiz juridikoak— mendekotasun- eta marjinazio-egoerak eragiten ditu, eta horrelako egoerek bestelako aldagaiek baino argibide-karga handiagoa izan dezakete. Horrenbestez, beste hainbat esparrutan gertatu ohi den bezala, marjinazio-prozesuek zerikusi handiagoa dute pobreziarekin eta pobreziak eragindako ezegonkortasunarekin, hots, gizarte-faktoreekin faktore etnokulturalekin baino lotura handiagoa duten aldagaiekin.

Gaur egungo egoeran zaila bada partaidetza-dinamikak sortzea, hori are zailagoa izango da gure hurbilketa migrazioaren errealitatearen ikuspegi sinplifikatua abiapuntutzat hartuz gauzatzen bada. Ikuspegi hori izatearekin batera, normalean, pertsonen portaerak oker interpretatu ohi dira, gaizkiulertuak sortzeaz eta etorkinak baztertzeaz gain, eta zenbait kasutan, beraz, «autobetetako profezia» deritzon efektua gerta daiteke. Bestalde, partaidetza hobetzeko hausnarketak eta eztabaidak geldiaraz daitezke, besteak beste, familia horiengandik ez dugulako ezer ere espero.

Lehen hausnarketak sustatzen saiatzen ari den lankidetza eta partaidetza motari buruzkoa beharko luke. Zenbait ikertzailek[2] komunitatearen inplikazioa aztertu dute, hots, ikasleen arrakasta lortzera bideratutako inplikazioa, desberdintasunak gaindituz eta kohesioa bultzatuz, hain zuzen ere.

---

[2] FLECHA, A. et ál.: *Participación en escuelas de éxito: una investigación comunicativa del proyecto Includ-ed*, Cultura y Educación, 21 (2) (2009), 183-196.

Egile horien hitzetan, lortutako emaitzek bost partaidetza motatako sailkapen bat eman zuten, komunitateak ikastetxeetan izandako partaidetzari dagokionez: Informaziozkoa, Kontsultazkoa, Erabakizkoa, Ebaluaziozkoa, eta Hezkuntzazkoa (Includ-ed consortium, 2009); horretaz gain, Informaziozkoa eta Kontsultazkoa ez daude ikastetxeen arrakastarekin lotuta.

Ikastetxe arrakastatsuetan egindako partaidetza-jardun berriak identifikatzea izan zen hurrengo urratsa. Gai jakin batzuk planteatzea zen urrats horren jomuga, hala nola komunitatearen partaidetza-jardun jakin batzuen (senitartekoen prestakuntza, erabakiak hartzeko prozesuetan komunitateek izandako partaidetza, curriculumaren garapenean eta ebaluazioan parte hartzea, ikasgeletan eta ikaskuntzaguneetan parte hartzea, edota komunitatearen inplikazioaren bitartez praktika barne-hartzaileak sustatzea) eta maila sozioekonomiko baxuko eta kultura-gutxiengoetako ikasleekin arrakastatsuak diren eskolen artean zein motatako lotura dagoen.

Mota horretako partaidetza-estrategiak aktibatu dituzten ikastetxeei buruzko ondorioei dagokienez, honako hauek nabarmen ditzakegu:

- Senitartekoen prestakuntzak, erabakiak hartzeko prozesuetan izandako partaidetzak eta ikasgeletan eta ikaskuntzaguneetan parte hartzeak curriculumaren garapenean eta ebaluazioan parte hartzeak baino presentzia handiagoa dute.
- Komunitatearen inplikazioaren bitartez praktika barne-hartzaileak sustatzeari dagokionez, identifikatutako lau partaidetza-jardunen zeharkakoa da.
- Agerian utzi da senitartekoen prestakuntza familien premiei erantzuteko gauzatzen dela eta horien eskariei jarraiki antolatzen dela.
- Ikasgeletan eta ikaskuntzaguneetan parte hartzeari dagokionez, berriz, praktika barne-hartzaileak sustatzeko gauzatu ohi da. Inplikazio hori ez da inolaz ere bideratzen praktika bereizleetara.
- Bi ikastetxe horietan erabakiak hartzeko prozesurako kontuan hartzen dira komunitate osoko iritziak. Ikastetxea demokratizatzeko prozesuari jarraitzen diote, familiei eta komunitateari baterako proiektua sortzeko ekintzan parte hartzea ahalbidetuz

# 2 Familiek eskolan parte hartu eta elkarlanean aritzeko baldintzak

Barne-hartzaileak, parte-hartzaileak eta kultura-aniztasunarekin errespetutsuak izaki ikastetxeetako partaidetzari zentzua ematen dioten hezkuntza-helburuetan arreta jartzearen ildotik lan egiten duten ikastetxeen arabera, partaidetza-prozesu arrakastatsuak honako «humus» hauetan prestatzen dira:

- Abiapuntua: familiek pentsatzen dutena eta behar dutena adieraz dezakete, baita parte hartzeko eskubidea eduki ere.
- Familia- eta gizarte-harremanek berdintasun eta kultura-mestizaje handiagokoak eta demokratikoagoak izateko joera dute.
- Eskola-komunitateak bertako kideen prestakuntza-premia guztiei erantzuna eman behar die, baita familienei ere.
- Feminismo dialogikoa. Amen partaidetza (baita arreba, ahizpa, amona eta izebena ere) prestakuntza-premiei eta lankidetza-moduei buruzko proposamenak irekitzen eta sortzen ari da.
- Bestelako bizimoduekiko errespetuak (familien eraldaketa, kultura-desberdintasunak) bestelako helduen presentzia ahalbidetu du (baita ikasgelaren barruan ere) eta baita itxaropenak areagotzea ere.
- Testuinguru horretan, irakasleek atzemateen dute beren lan-programa familiekin eta ikasleekin partekatu behar dutela.
- Familien partaidetzarik ezari buruzko interpretazio barne-hartzaileak.
- Familiek beren interesak eta gizarte-, hezkuntza- eta kultura-interesak jasotzen dituen eskola mota batean parte hartzeko dituzten aukerak.
- Kultura-adimena. Gaitasun desberdinak —praktikoak edota akademikoak— dituzten pertsonekin elkarreragina izatea da horren jomuga, esparru kognitiboan, etikoan, estetikoan eta afektiboan adostasunetara iristeko.

- Kultura-adimenak ere egoera horretan egiten du lan. Kultura arteko ikuspegia sartzeko, ezinbestekoa da familiek testuinguru jakin batzuetan dituzten ezagupenei balioa ematea (ezagupen-funtsak), eta horretaz gain, eskolak egin ditzakeen ekarpenak balioetsi behar dituzte familiek (testuingurutik ateratzeko maila altuetan mugitzeko abileziak).
- Eta baita honako honetan ere: mundua eta bizitza ulertzea, gizarte-sarean egoera korapilatsuak edota gatazkatsuak konpontzeko dagoen informazioa, hain zuzen ere.
- Familiek eskola-komunitatean parte hartzeari esker, munduan ikusteko, sentitzeko eta jarduteko bestelako kultura-moduak sar daitezke.

# 3 Partaidetza prozesu bat aktibatzea

Familiek parte hartzeko aukera handiak dituzte, eta sortu nahi duten eskolari eta familiek izan ditzaketen eginkizunei buruz irakasleek duten ikuspegiaren araberakoak dira aukera horiek.

Gizarte-egoera ahuleko ikasleak dituzten eskoletan abian jarritako esperientzia arrakastatsu desberdinen arteko aldeak aditzera ematen digunez, oinarrizko partaidetza bermatzeko funtsezko irizpide eta ekintza jakin batzuk kontuan hartu behar dira.

1. Partaidetza-prozesuaren atarikoak zaintzea

   1.1. Ditugun baliabide pertsonal eta ekonomikoak:

   - Familien inplikazioan gutxieneko denbora-tarte batez lan egin dezaketen irakasleak.
   - IGEren edota Ikasleen Senitartekoen Elkartearen sendotasuna.
   - Komunitatean nolabaiteko garrantzia duten pertsonen laguntza: gizarte- eta hezkuntza-bitartekariak edota gizarte- eta kultura-bitartekariak, gizarte-hezitzaileak, elkarteak, komunitate-liderrak, eta oro har, boluntarioak.
   - Aurrekontu ekonomikoa: finantzaketa: udalekoa, forala edota Hezkuntza Sailekoa (PROA edo Indartzeko, Orientatzeko eta Laguntzeko Programak), esku hartzeko programak eskaintzen dituzten elkarteak, Kutxen finantzaketa, eta abar.

   1.2. Klaustroaren adostasun- edota inplikazio-maila, baina bereziki, zuzendaritzataldearena, batzorde pedagogikoarena, eta familiekin ardura handiena duten irakasleena: tutoreak, kultura arteko dinamizatzailea, elkarbizitza-programetan inplikatutako irakasleak, eta abar.

1.3. Deialdia eta harremanetan jartzeko moduak eta teknikak:

- Bide klasikoa: eskutitzak (hainbat hizkuntzatara itzuliak), senitartekoen biltzarrak eta bilerak, tutoretza-elkarrizketak, eta abar.
- Bide berriak: topaketak komunitate-liderrekin, -bitartekariekin eta -eragileekin. Eragileen eginkizunen eta helmuga-kolektiboaren araberako ekintza espezifikoak: topaketak helmuga-kolektiboko kideen etxeetan edota meskitetan, elkarrizketak liderrekin, telefono-deiak kide horien hizkuntzetan, harrera-protokoloetarako gonbidapenak, horien jarduerez baliatzen diren elkarteak, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, bilerak kultura-komunitateekin, eta abar.

1.4. Aurretiaz partaidetza-aukeren berri ematea. Aurkezpena, eta batez ere, horien berri ahoz ematea, ahal bada, gizarte-sare esanguratsuak erabiliz.

- Familiek zer egin dezaketen eta lankidetza zertarako eskatzen zaien ikusten dute.
- Inplikazio-moduak dibertsifikatzen dira, sentsibilitate, zaletasun, aukera eta premia guztietara iristeko.
- Alternatibei dagokienez, ikasleak —lehenik eta behin, semea edo alaba— tartean sartuko dituen (premiagatik eta motibazioagatik) alternatiba multzo bat eskaini behar da.
- Horrela, inplikazio-modu edo -mota bakoitzeko koordina, lagun, harrera egin edota jarraipena egin dezakeen pertsona bat egongo dela (gutxienez, hasieran) bermatuko da.
- Hasieran, komunitateko kide gehienek potentziatutako hainbat ekintzaren funtzionamenduak senitartekoaren euskarri gisa balio dezake (harrerari eta eskainitakoaren funtzionamendu praktikoari buruzko argibideei dagokienez), baita senitarteko gutxi badaude ere.
- Ekintza gehienetan amek hartzen dute parte, eta normalean, arazoak izan ohi dituzte, ezin baitituzte seme-alabak bakarrik utzi; beraz, zenbait elkarrizketa edo prestakuntza-jardueratarako seme-alabak zaintzeko alternatibak eskaini beharko zaizkiela kontuan hartu beharko da.

1.5. Lehen hartzaileei dagokienez, eskainitakoari erantzuteko eta hasieran nolabaiteko arrakasta ziurtatzeko kondizio hoberenetan daudenak izan beharko dute; hori

horrela izanik, oinarri seguruak sortzeaz gain, eragile dinamizatzaileen adoreari eutsi ahal izango diogu.

1.6. Esku-hartzearen plangintza, familien inplikazioa aktibatu edo indartzeko; plangintza horretan honako hauek jaso beharko dira: datak, partaidetza-lehentasunak, eginkizunen eta ekintzen banaketa prozesuari hasiera eman diezaioketen pertsonen artean, edo lortutakoa ebaluatzeko uneak, besteak beste.

2. Prozesuari jarraipena ematea eta eustea

- Edozein ekintzak arrakasta izango du baldin eta malgutasunarekin eta aldi berean, zorroztasunarekin egiten bada. Hasieran, beharbada, senitartekoek ekintza jakin bati ez diote behar bezala erantzungo, baina ekintza horren arduradunak ezin izango die hori onartu: presentzia, puntualtasuna, harrera-jokabidea, jarduera ondo prestatuta edukitzea, toki egokiak izatea, beharrezko baliabideak behar bezala ibiltzea, haurtzaindegia prest egotea, aldameneko gelaren batean haurrentzako jolasak eskaintzea, itzulpenak egin ditzakeen pertsonaren bat, eta abar.
- Inplikazioari eta partaidetzari jarraipena egitea, aurretiaz ezarritako konpromisoetara ez aurkeztearen arrazoiak alderatzeko aukerarekin.
- Parte hartzeko moduek askotarikoak beharko dute, baina ezin izango dute batasuna, globaltasuna eta lehentasunak galtzea eragin.
- Senitartekoak inplikatzeko arrazoia ikasten duen eta bere kultura- eta gizarte-kapitala aprobetxatzen duen komunitatea sortzea da, ikasleen ikaskuntza bizkortzeko (lehentasunez) ahalik eta denbora eta toki gehien elkartzea ahalbidetuz.
- Familiek eta familiekin egindako esku-hartzeak integrala izateko nolabaiteko joera izan behar du, hau da, senitartekoen premia ugari estaltzeko ahalmena edukitzeaz gain (gurasoen gaitasuna), oinarrizko dimentsioei aurre egin dakizkiekeen baliabideetara zuzenduta egotea: janaria, laneratzea, gizarteratzea, etxebizitza, lege-erregulazioa, seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria, genero-indarkeria, eta abar.
- Ikastetxeak komunitatean dauden zerbitzuekiko koordinazio handia izan behar du.

3. Jarraipena eta balioespena

- Ardura hori duen pertsonak edo batzordeak jarraipen eta balioespenak egiteko uneak ezarri beharko ditu, partaidetza-prozesuan arriskurik egon ez dadin:

*a)* Prozesuaren xedea familiak ahalduntzea eta familien autonomia eta ekimen pertsonala indartzea dela kontuan hartu behar da une oro. Hasieran, familien mendetasuna onartu beharko dugu, baina amaieran, seme-alaben hezkuntza-prozesuetan erabakiak hartzeko eta eragina izateko gaitasuna izan beharko dute, eskola barruan nahiz etxean, berezko inplikazio- eta prestakuntza-ekimenen gainean.

*b)* Ikasleekin egiten den hezkuntza-lanarekiko paraleloak diren partaidetza-egoerak ez dira sortu behar, horrelako kasuetan, elkarrekikotasunik eta konpromisorik gabeko zerbitzu-enpresa antzeko zerbait sor baitaiteke. Eta horrelako tokietan, klaustroak ez baititu ezagutzen familiek parte hartzeko dituzten moduak eta Zuzendaritzaren eginkizuna gauzak gogoan hartzea baita soili-soilik.

*c)* Hori dela-eta, familiari gizarte- edo hezkuntza-premiaren batean emandako zuzeneko laguntza ez ezik, inplikazio-moduek beste zerbait ere jaso beharko dute, senitartekoek eskolaren mesederako jardueraren batean emandako laguntza, hain zuzen.

*d)* Baterako ekintzak —irakasleekin eta ikasleekin egin beharrekoak— nabarmentzea, betiere sistemaren bihotzean —ikasgelan— eta oro har, seme-alaben hezkuntzan benetan lagungarriak izan badaitezke.

*e)* Kostuari eta mozkinei buruzko balioespenak egitea, energiak, denbora eta dirua inbertitzeagatik behar ez den ahuldura ekiditeko, benetan lortutako emaitzekin alderatuz. Kontua izan behar dugu figura profesional jakin batzuen burokratizazioarekin, soldata edota eginkizun profesional bat justifikatzeko funtzionatzen ez duten ekintzak behin eta berriz egin nahi izaten baitute horrelakoek zenbait kasutan.

Ferrer-ek (2007), Booth-en eta Ainscow-ren proposamenetan (2002) inspiratuta, partaidetza-prozesuak ebaluatzeko eredu bat proposatzen du. Familiei gagozkiela, bi ebaluazio-esparru identifikatzen ditu lehenik eta behin:

1. Ikastetxea ikaskuntza-komunitate gisa antolatzea. Erabakiak hartzeko gune berriak sortzea.

2. Parte hartzeko eta ikasteko guneak: Talde elkarreragileak eta senitartekoen prestakuntzarako ekintzak eta programak:

- Seme-alaben estimulazio kognitiboaren eta horiekiko elkarreraginaren (ahozkoa) kalitatea hobetzen irakasten duten programak.
- Senitartekoek beren seme-alaben denbora —eskolaz kanpokoa— gidatzen eta bideratzen ikastea.
- Etxeko ikaskuntza akademikoa indartzen ikastea.
- Familientzako prestakuntza-programak.

Ondoren, familien lankidetzarekin lotutako ebaluazio-adierazle jakin batzuk proposatzen ditu:

- Irakasleak, familiak, boluntarioak eta batzordeetan ordezkaritzarik duten bestelako eragileak.
- Familia berriei ikastetxera egokitzen laguntzen zaie.
- Talde elkarreragileak dituzten ikasgelak gune irekiak dira, senitartekoei eta bestelako eragileei parte hartzeko aukera ematen dietenak.
- Familiek elkarri laguntzen diote.
- Familiek elkarrekin egiten dute lan, modu estuan.
- Familiak errespetuz tratatzen dira.
- Gainerako familiek garrantzi berbera dutela pentsatzen dute familiek.
- Gainerako familien gainean itxaropen handiak daude.
- Partaidetzarako eta ikaskuntzarako hainbat gune antolatzen dira, familia guztiek balioetsita daudela senti dezaten.
- Familien prestakuntzak hainbat interes eta itxaropeni erantzuten diote.
- Hainbat kultura-jatorritako familiek hartzen dute parte.
- Familiek prestakuntzaguneak antolatzen dituzte.
- …

# 4 Laguntzeko/parte hartzeko zenbait modu

Familiaren laguntza eta partaidetza hainbat unetan gerta daiteke, hainbat jardueratarako eta maila desberdinetan (Inter, 2003). J. Epstein-ek (2004) egindako sailkapena, hainbat egileren ekarpenak (Guía Inter[3]) eta gaur egun gauzatzen ari diren zenbait esperientzia oinarri gisa hartuz, honako laguntza- eta partaidetza-esparru hauek iradoki daitezke:

## 4.1. Familiei guraso gaitasunak garatzen laguntzea

Irakasleek eta/edo bestelako profesionalek familiekin lankidetzan aritzeko aukera dute, hainbat hezkuntza-alderdiri eta etxetik eskolako helburuetan laguntzeko moduari dagokienez gurasoek izan beharreko gaitasunak indartzeko.

### a) Senitartekoei ikastetxean bertan prestakuntza emateko proiektuak

Senitartekoei prestakuntza emateko hiru eredu bereiz ditzakegu: Máiquez

- Eredu akademikoa: ikaskuntza formaleko agertoki batean garapena eta hezkuntza lortzeari buruzko kontzeptuak beren gain hartzea.
- Eredu teknikoa: jokabidea aldatzean, gizarte-ikaskuntzan eta abarretan oinarritutako teknikak eta prozedurak beren gain hartzea. Ikaskuntza adituko agertokia da.
- Esperientzia-eredua: eguneroko jazoeren ezagupena gizarte- eta kultura-ikaskuntzako agertoki batean berritzea.

Eredu akademikoan, testuingurutik ateratako informazioa emateko arriskua izan dezakegu, oroimenezkoa, arbitrarioa, azalekoa edota osatu gabea, hain zuzen ere, senitartekoen praktikaren bitartez informazio hori automatikoki zehatuko dela esperoz.

---

[3] AGUADO, Teresa et ál.: *Guía Inter, Una guía práctica para aplicar la educación intercultural en la escuela,* UNED http://inter.up.pt/docs/spanish_guide.pdf

Senitartekoen teorizazioa ez dugu kontuan hartzen (teoria inplizituak eta esplizituak), eta horien praktika, berriz, are gutxiago. Kontzeptu bat gaitasun gehiago edukitzeko lagungarria izatea nahi badugu, ezinbestekoa izango da kontzeptu hori baliabide erabilgarri bilakatzea, hau da, baliabide horren erabilera egoera zehatzen testuinguruan jar dadin eta haren esanahia praktiken komunitate batean negozia dadin.

Seme-alabekin garatu beharreko gaitasunak senitartekoek aurretiaz duten bizi- eta kultura-ezagupenean nahasi behar dira, «ezagupen-funtsetan» eta senitartekoen antolakuntza-kulturan, hain zuzen ere.

Esperientzia-ikaskuntzaren lehentasunezko helburua eguneroko bizitzako praktikak kontzeptualizatzea da. Hausnartzen, ikasten eta praktikatzen denari buruzko oinarrizko gaia familia-bizitzako jazoerak dira; indukzio-prozesu baten bitartez, ezagupena sortzen da, egoeretatik eta erabiltzen diren teoria inplizituetatik abiatuz.

Ikaskuntza-eredu horretan, senitartekoek gertatzen zaienari eta egiten dutenari buruzko ahalik eta argibide esplizituenak eman beharko dituzte (ekintzaren pragmatika), beste senitartekoen ekarpenekin eta dinamizatzailearen (tutorea, irakaslea, kultura arteko dinamizatzailea, psikopedagogoa, eta abar) trebeziarekin aberasten diren neurrian, eta horri esker, jazoera zehatz batez haraindi joatea eta jazoera hura bestelako egoeretan malgutasunez aplikatzea ahalbidetuko dien kontzeptualizazio-maila jakin batera iritsiz.

Esperientzia-ezagupena berritzeari dagokionez, bestalde, guraso izateak dakartzan zereginen esanahien negoziazioak elkartrukatzen diren heinean egin ohi da. Horiek guztiek oso erabilgarriak izan daitezkeen benetako baliabide- eta trebetasun-banku bat osatzen dute.

Hona hemen praktiken zenbait adibide:

- http://www.jardunaldiak.net/index_es_1.html
- FORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN DE PERSONAS ADULTAS/ HELDUEN PRESTAKUNTZA ETA PARTEHARTZEA
- KARMENGO AMA LHI: Formación y participación de familiares
- KARMENGO AMA LHI: Familien formakuntza eta partaidetza
- CEIP MARE DE DÉU DE MONTSERRAT: La participación de los familiares en nuestra comunidad de aprendizaje

- http://www.lekeitioeskola.com/buletinak/ikas_08/buletinak2/participacion-formacion
- http://www.karmengoamaeskola.net/HTM/castellano/proyecto/comunidad.htm
- http://www.ieslucasmallada.com/Comunidades/comuna3.htm

### b) Elkarrekiko konpromisorako kontratuak

Elkarrekiko konpromisorako kontratuak, ikastekoak eta didaktikoak; horrelakoetan, senitartekoak, ikasleak eta irakasleak inplikatu ohi dira, eta zenbait kasutan, baita beste hainbat hezkuntza-eragile ere.

Ikastetxe ugari kalitate handiko esperientziak abian jartzen ari dira alor horretan, horiek ere Ikaskuntza Komunitateei dagozkienak:

- http://www.karmengoamaeskola.net/HTM/castellano/proyecto/comunidad.htm
- http://www.rupertomedina.net/principal_rm.htm

Informazio gehiago nahi izanez gero, ondoren adierazitako liburua gomendatzen dugu, kontratuak egiten laguntzeko funtsezkoa, zehatza eta balio handikoa baita: PRZESMYCKI, H.: *La pedagogía del contrato. El contrato didáctico en la educación*, Graó, Bartzelona, 2000.

### c) Familiei eskolan laguntzeko moduari buruzko orientabidea ematen dieten on-line baliabideak

Eskolan laguntzeko edota eskola-testuingurura heda daitezkeen etxeko gaitasunen garapena sustatzeko moduari buruzko orientabidea ematen dieten on-line baliabideak:

- HIRU.COM http://www.hiru.com/eskola_laguntza/?taldea=zzeskola1

  Hezkuntza Sailaren webgunea, etengabeko ikaskuntzari buruzkoa. Eta webgune horretan eskola-laguntzaren gaia agertzen da, honako hiru atal hauetan banatua: zure seme-alabei ikasten lagundu, irtenaldi hezigarriak, eta ongi informatutako gurasoak.

- EHIGE http://www.ehige.org/

Gurasoen Elkartea. Bizkaiko, Iparraldeko, Arabako eta Gipuzkoako eskola publikoko ikasleen gurasoen elkarte-federazioen elkartea da. Ondoren adierazitako helbideak lurralde bakoitzeko Federazioen webguneetara sartzeko balio du; bertan, familiei zuzendutako hezkuntza-laguntzei buruzko gure testuinguruan oinarritutako proposamen ugari aurki ditzakegu, eta besteak beste, honako baliabide hauek nabarmen daitezke:

— http://www.bige.es/:

http://www.katalogoa.org/
Euskarazko produktuen katalogoa sortu dute hainbat udalek. Esate baterako, haurrentzako irakurketa-liburuak aurki ditzakegu, euskarazkoak, eta adinen arabera sailkatuak.

http://www.bige.es/wp-content/uploads/2007/10/Guia.pdf.
Haur elebidunen gurasoentzako gidaliburua

http://www.bige.es/wp-content/uploads/2007/10/Familiak%20ere%20kontatzen%20du.pdf
Etxean euskaraz irakurtzera animatzeko gomendioak. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

— http://www.denoneskola.org/www/index.php?lang=cas

http://www.denoneskola.org/www/images/stories/Temasactualidad/Asamblea/Memoria_final_del__curso_2006-2007_para_web.pdf. Págs 13-55

Dokumentu hori Denon Eskola Arabako Ikastetxe Publikoetako IGEen Federazioaren memoria dugu, eta adierazitako orrialdeetan, PINDAR Kulturartekotasun Proiektuko jarduerak garatzen dira; adierazitako Proiektuaren xedea IGEen kulturartekotasuna sustatzea da. Adierazitako memoria irakurtzea gomendatzen dugu, federazio batek egindako proposamen paregabea dela baiteritzogu, familien elkarbizitza eta kultura arteko ikaskuntza bultzatzeko aukeretako zenbaitzuei buruzko proposamena, hain zuzen. Proposamen ugari jarri dira abian, eta dokumentu honetan aipatu baino ez ditugu egingo, irakurtzea gomendatuz:

- Kultura arteko gaitasunerako programa (Programa de competencia intercultural edo PCI). Gurasoek eta eskoletako bestelako hezkuntza-eragileek kultura

arteko elkartrukea gauzatzeari buruzko jardueren antolakuntza, kultura arteko elkarbizitza beren gain hartzeko edota hobetzeko.

- Atzerriko Familien partaidetza sustatzeko programa (Programa de incentivación de la participación de Familias Extranjeras edo PIPE). Familia etorkinak gizartera daitezen eta eskoletan parte har dezaten indartzeko ekintzak eta jarduerak gauzatzea.

- Hitzak Gainditu Programa (HIGA). IGEei, eta subisidiarioki, eskola-komunitate osoari, eskola-esparruan interpretazio- eta itzulpen-zerbitzua eskaintzea, familia etorkinek behar duten hizkuntza-bitartekaritzari erantzuteko.

Nabarmendu beharrekoa da EHIGE konfederazioak sortutako glosarioa —hezkuntza-sistemari buruzkoa— euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta arabieraz eskura daitekeela, eta baita konfederazioa osatzen duten hiru federazioen webguneetatik jaitsi ere. Hona hemen BAIKARA federaziorako esteka:

http://www.baikara.org/GAZTELERAZ/DOCUMENTOS%20MADRES-PADRES/IntrodGlosario.htm

Horretaz gain, oinarrizko zenbait dokumentu arabierara itzuli dira, esate baterako:

- Eskola-jantokirako fitxa.
- Ikaskideen artean telefono-zenbakiak ezagutzera emateko baimena.
- Ikaslearen irudia ikaskideen artean erabiltzeko baimena.
- Eskolara ez joatea justifikatzeko eskutitza.
- Zorriei buruzko informazio-oharra.

- CEAPA Ikasleen Gurasoen Elkarteen Espainiako Konfederazioa (estatu-esparruan). http://www.ceapa.es/

  Aldizkariaren, dokumentuen eta argitalpenen ataletan on-line baliabideen oso banku interesgarria dute eskuragarri familiek.

- http://www.solohijos.com/

  Guraso hobeak izateko ataria, gai ugariri buruzko baliabide zabalekin.

- http://www.ed.gov/espanol/parents/academic/help/preguntas/preguntas.pdf

Estatu Batuetako gurasoei zuzendutako dokumentu hori gaztelaniara itzulita dago, biztanleria hispanoak sarbidea izan dezan. «No Child Left Behind» (Ezein haur atzean gera ez dadin) deritzon Bush Legearen (2002) testuinguruan sortu zen adierazitako dokumentua. Zenbait egilek gogor kritikatu dute lege hori, Eskola Eraginkortasunaren ereduetan baitago haren nitxo ideologikoa, eskoletan zer, noiz eta nola ebaluatzeari buruzko kontrola areagotuz. Irakasleak izugarrizko presioa jasatera bultzatu ditu horrek. Moll-ek (2007) zalantzan jartzen ditu irakasleak eskoletan ikertzeko, saiakuntzak egiteko eta berrikuntzak sartzeko jasaten ari diren zailtasun izugarriak.

Arestian azaldutako zuhurtziarekin, dokumentu hori irakurtzea gomendatzen dugu, eskolaren xedeetan laguntzeko senitartekoei orientabide zehatzak emateko lagungarria izan baitaiteke eskoletarako.

- http://www.ed.gov/espanol/parents/academic/hyc-esp.html
  Estatu Batuetako Hezkuntza Departamentukoa. «Ayudando a su hijo» Seriea

- http://www.ed.gov/parents/academic/help/partnership.html?src=mr
  Estatu Batuetako Hezkuntza Departamentukoa. Gurasoek izan ohi dituzten zenbait erronkari heltzeko laguntzak.

- http://www.urbanext.uiuc.edu/succeed_sp/index.html
  Illinois-eko Unibertsitateko unibertsitate-hedapena. Seme-alabei eskola-arrakasta izaten laguntzen ikasteko orientabidea ematen zaie familiei.

- http://www.urbanext.uiuc.edu/familyworks_sp/school-00.html
  Illinois-eko Unibertsitateko unibertsitate-hedapena. Seme-alabak hezteko ahalmena areagotzen laguntzeko orientabidea ematen zaie familiei.

Kanadako Ontario probintziako baliabideak, gaztelaniaz eta beste hainbat hizkuntzatan:

Ondorengo baliabideak (bideoak eta dokumentuak) honako webgune honetatik atera dira:

- http://www.settlement.org/edguide
- http://www.settlement.org/sys/library_detail.asp?passed_lang=EN&doc_id=1004151
  Familia etorkinei orientabidea emateko bideoa, Kanadako neguan seme-alabekin izan beharreko arreta fisikoari buruzkoa, hitzik eta iruzkinik gabekoa.

- http://www.settlement.org/downloads/dressing_for_winter.pdf
  Ingelesezko hiztegia.
- http://www.settlement.org/downloads/edguide/sp_pub_full.pdf
  Seme-alabak Lehen Hezkuntzan dituzten familientzako gidaliburua.
- http://www.settlement.org/downloads/edguide/sp_pubsec_full.pdf
  Seme-alabak Bigarren Hezkuntzan dituzten familientzako gidaliburua.
- http://www.settlementdownloads.org/downloads/video/parentteacher/PT_SP.html
  Bideoa. Familiei tutorearekin izan beharreko elkarrizketa prestatzeko moduari buruzko orientazioa emateko.

